

ZUMAIA LANTZEN S.A.ren
ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

70ZK-KO AKTA

ZUMAIA LANTZEN S.A.ren Administrazio Kontseilua ZUMAIAn bildu da, bi mila eta bateko urriaren 29an.

BERTARATUAK

Lehendakaria: Rikardo PEÑA KINTELA
Batzarkideak: Asier ESNAL ALBIZU
Felipe GUTIERREZ SERVAN
Gonzalo TORRE OLEAGA
Idazkaria: Miren ETXEZARRETA GARMENDIA

Bilerara etorri dira Luziano Paguegi, udal arkitektoa; Tomas Eizmendi eta Jose Ramon Estomba, ESARBE S.A.ko ordezkariak.

EGUNEKO AZTERGAIK

1.- AURREKO KONTSEILUKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA (01/10/15eko 69.akta).

Akta irakurri eta horri buruzko aipamenak egin ondoren, aho batez onartu zen, zuzenketarik egin gabe.

2.- PUNTANUETAKO HIRIGINTZA PROIEKTUAREN LAGUNTZA TEKNIKOAREN ADJUDIKAZIOA.

Kontrataziorako mahaia 01/10/22an eratu zen eta kartazal itxiak ireki ziren, dokumentazioaren eta eskaintzen egiaztapenak eginaz.

Miren Etxezarreta idazkariak, Luziano Paguegi udal arkitektoak eta Tomas Eizmendi Esarbe S.A.ko ordezkari teknikoak osatu zuten batzorde teknikoa eta 2001eko urriaren 29an Irizpen teknikoa eman zuen, horren ondorioetan hurrengo puntuazioa ezarriz:

SESTRA 62,98 puntu; IDOM 55,47 puntu; UTE ALTAIR-EURO PROYET 48,97 puntu; ASMATU E. M. 45,40 puntu eta DUBEGA 42,91 puntu.

Kontseiluak irizpena aztertu zuen eta bidezkoztat emanaz, erabaki zuen Zumaiako Puntanuetako Hirigintza Proiektuaren idazketarako Laguntza tekniko eta Etxebizitza Eremuaren Zuzendaritza tekniko S.E.S.T.R.A S.A. entitateari adjudikatzea.

3.- BESTE ZENBAIT. ESKARIAK ETA GALDERAK.

3.1.- Kontseiluaren aurreko batzarraldietan “mahai gainean” utzi zen 32.HGAREN 2.faseko A.6.1 lurzatian pabiloi industrialaren adjudikazioa eta obren hasiera, gutxienez 2.000 m²ko eskaera bat ziurtatu arte.

Gaur egun 2.321 m²ko azaleraren inguruko hitzezko akordioa dago: ERAMAN-ROBORLAN (963 m²); XP Instalazioak (508 m²); Santiago Orena (550 m²) eta Zutecmar (300 m²).

Egoera berri honen aurrean, erabaki da eskaintza egin duten bost enpresa eraikitzaileen kartazalak irekitzea (lehenengo fasean bezala, gonbidatuak izan ziren 16 enpresetatik).

OZIO Eraikuntzak E. M. (147.656.168 pezetarekin); Donosti Eraikuntzak S.A. (195.763.512 pezetarekin); Antzibar Eraikuntzak S.A. (171.074.179 pezetarekin); Brues Eraikuntzak S.A. (180.320.300 pezetarekin) eta TEUS Eraikuntzak S.A. (163.022.780 pezetarekin) egindako eskaintzak ikusirik, Kontseiluak erabaki zuen obra hauek OZIO Eraikuntzak E.M.ari adjudikatzea, eskaintzarik onuragarriena delako eta lehenengo fasekoak oso ondo egin zituelako.

3.2.- Gerentziak eta Lehendakariak Oikiako lurjabeekin bilera bat egiteko ahalbidearen berri eman zuten, susta litekeen industrialde berri bati buruz hitz egiteko, horrela balitz, Zumaiako AA.SS. etako Berrikusketan jaso beharko litzatekeena.

Kontseilua jakinean geratu zen eta ados.

Eta beste aztergairik gabe, akta honek zehatz-mehatz jasotzen duen bilera bukatutzat eman zen, eta nik idazkari honek, sinatu egin dut lehendakariak ontzat eman ondoren.

O. E.
LEHENDAKARIA

IDAZKARIA